

Erantzukizun politikoak argitzea eta azken ondorioetaraino iristea ezinbestekoa da Zaldibarren

Otsailaren 6an, igandean, bi urte beteko dira Zaldibarko Verter Recycling zabortegia erori zela. Bi langile, Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze, zabor artean lurperatu zituzten.

Peritu txostenen arabera eta hasieratik gehiengo sindikalak salatu duenez, enpresako arduradunak jakitun ziren zabortegian zeuden kalteez, lurrean pitzadurak zeudela ohartariak zeuden, kolapsoa gertatzeko arriskua zegoela ere jakin bazekiten, eta txosten teknikoek jarduera gelditzeko gomendatu zieten enpresako arduradunei.

Nahiz eta egoera larriaren jakitun izan, enpresak ez zuen ezer egin erorketa saihesteko, ez zituzten langileak ohartarazi eta ez zuten gailu berezirik ezarri eta ez zen ekoizpena gelditu. Katastrofea gertatu zen eta bi langile hil zituen.

Frogatuta geratu da Verter Recyclingek zuzeneko erantzukizuna duela hildako langileen gainean eta, horregatik, Zaldibarko Zabortegiko hiru arduradunei, Jose Ignacio Barinaga (enpresaren jabea), Arrate Bilbao (gerentea) eta Juan Etxebarriari (ingeniari-burua) bi langileen zuhurtziagabekeriazko homizidioa eta langileen segurtasunaren aurkako delitua egotzi zizkieten.

Arduradunek euren erantzukizuna onartu dute espetxeen ez sartzearen truke, eta enpresak biktimen familiei kalte ordain ekonomikoa ordaintzeko konpromisoa hartu du.

Agerian geratu da, patronalak langileen heriotzetan duen erantzukizun zuzena frogatu arren, diru kopuru baten truke kartzela zigorrak saihestu daitezkela. Egiaztatu dugu langileen heriotzak, istripuak eta gaixotasun profesionalak merke ateratzen zaizkiela patronalari, eta horrek horrela jarraitzen duen bitartean gauzak ez direla aldatuko.

Zaldibarko zabortegiaren lur erortzea, erantzukizuna ezin zaio enpresari mugatu; izan

ere, administrazio publikoek zuzeneko erantzukizuna izan dute, ez baitute zaintza eta kontrol lanik egin. Horregatik, garrantzi berezia du erantzukizunak argitzeak, baita politikoak ere.

Laneko odolusteak ez du etenik, egiturazko arazo larri baten aurrean gaude. Lan istripuek, urtez urte, gora egiten dute. Horrela, 2021ean gutxienez 62 langilek galdu dute bizia lanean eta aurten 6 dira jada lan istripuz hildako langileak. Azpikontratazio maila handia, behin-behinekotasuna gero eta handiagoa eta enplegu eta lan baldintzen prekariatatea dira egoera horren atzean dauden faktore nagusiak.

Hala eta guztiz ere, Gasteizko gobernuak oraindik ez ditu segurtasun eta osasun arloko politikak aldatu nahi, eta agerian geratu da politika horiek ez direla eraginkorrik eta ez direla nahikoak ezbehar tasaren gaitz soziala ezabatzeko.

Era berean, ingurumen politikek eta hondakinak kudeatzeko politikek klase nagusiek eta haien interesek markatutako bide neoliberal eta ekoizidari jarraitzen diote. Politika horiek ez dituzte, inola ere, herri klaseen premiazko arazoak konpontzen eta beren lehentasunen artean ez dute lehenesten beren erabakiek eta politikek eragiten duten drama ekologiko nabarmena, tokikoa zein globala.

Politikak aldatzeko garaia da, alternatibak ditugu. Borondate politikoa besterik ez da falta, bizitza eta osasuna beste guztiaren gainetik jarriko dituen sistema alternatibo bat garatzeko.

Gehiengo sindikaletik, Zaldibarko zabortegian gertatutako guztia salatzeaz gain, babes eta elkartasun osoa adierazi nahi diegu Alberto Sololuze eta Joaquin Beltranen familiei, baita lanean edo horren ondorioz hildako langile guztiei ere. Bada garaia laneko heriotzek eragiten duten sarraskia bertan behera uzteko.

Depurar responsabilidades políticas y llegar hasta las últimas consecuencias es imprescindible en Zaldibar

El 6 de febrero se cumplen dos años del derrumbe del vertedero de la empresa Verter Recycling en Zaldibar que sepultó entre la basura a dos trabajadores, Joaquin Beltran y Alberto Sololuze.

Informes periciales apuntan a lo que desde el principio hemos denunciado desde la mayoría sindical, que los responsables de la empresa eran conscientes de los desperfectos que había en el vertedero, que la empresa fué alertada sobre las grietas que había en la tierra, que conocían que había riesgo evidente de que se produjera el colapso y que los informés técnicos recomendaron a los responsables de la empresa parar la actividad.

Pese a ser conscientes de esta grave situación, la empresa no hizo nada para evitar el derrumbe, no alertaron a los trabajadores ni implementaron ningún dispositivo especial y no se detuvo la producción. Y, finalmente, se produjo la catastrofe que acabó con la vida de dos trabajadores.

Ha quedado probado que Verter Recycling tiene responsabilidad directa sobre lo ocurrido con los trabajadores fallecidos, por lo que los tres responsables del Vertedero de Zaldibar, Jose Ignacio Barinaga (dueño de la empresa), Arrate Bilbao (gerente) y Juan Etxebarria (ingeniero jefe) fueron acusados por el homicidio imprudente de los dos trabajadores y por un delito contra la seguridad de los trabajadores.

Los responsables han admitido su responsabilidad a cambio de no entrar en prisión y la empresa se compromete a pagar una indemnización económica a las familias de las víctimas.

Ha quedado en evidencia que, pese ha quedar probada la responsabilidad directa de la patronal en las muertes de los y las trabajadoras, se pueden evitar las penas de carcel a cambio de una cantidad de dinero. Constatamos que las muertes, accidentes y enfermedades profesionales de la clase trabajadora, en general, les salen muy baratas a la patronal. Mientras esto siga así las cosas no cambiarán.

En el derumbe del vertedero de Zaldibar, la responsabilidad no puede limitarse a la empresa, ya

que las distintas Administraciones Pùblicas han tenido una responsabilidad directa por no ejercer su tarea de vigilancia y control. Por ello, tiene especial importancia depurar las responsabilidades hasta sus últimas consecuencias, también las políticas.

La sangría laboral no tiene fin, estamos ante un grave problema estructural. Los accidentes laborales, año tras año no hacen más que aumentar. Así, en 2021 al menos 62 trabajadores y trabajadoras perdieron la vida en el trabajo y en lo que vamos de año son ya 6 las personas fallecidas en accidente laboral. El alto nivel de subcontratación, la creciente eventualidad y la precariedad de las condiciones de empleo y trabajo son los principales factores que están detrás de esta situación.

Pese a ello, el gobierno de Gasteiz sigue sin querer cambiar sus políticas en materia de seguridad y salud laboral, políticas que ya se han demostrado que son ineficaces e insuficientes para eliminar la lacra social de la siniestralidad laboral.

Así mismo, las políticas medioambientales y de gestión de residuos siguen la senda neoliberal y ecocida marcada por unas clases dominantes y sus intereses que en ningún caso abordan los urgentes problemas de las clases populares ni anteponen entre sus prioridades el evidente drama ecológico que sus decisiones y políticas provocan, tanto a nivel local como global.

Es hora de cambiar las políticas, tenemos alternativas, solo falta voluntad política para desarrollar un sistema alternativo que ponga la vida y la salud por encima de todo lo demás.

Desde la mayoría sindical, además de denunciar todo lo ocurrido en el vertedero de Zaldibar, queremos mostrar todo el apoyo y solidaridad a las familias de Alberto Sololuze y Joaquin Beltran, así como a todos los trabajadores y trabajadoras fallecidos en el trabajo o a consecuencia del mismo. Seguiremos trabajando y luchando en favor de la seguridad y salud de la clase trabajadora. Es hora de que cese la masacre que provocan las muertes laborales.